

II. GOI NAFARROATIK BEHE NAFARROARA

MANEX GOIHENETXE

Duela 475 urte Nafarroak jasan zuen konkistaren eta aldaketa politikoaren ondorioetarik bat izan da osotasuna eta batasuna galdu zuela. Gainera, Erdi Aroan zehar Tierras de Ultra Puertos deituak izan ziren lurraldeak, Erresuma berri baten sustrai bihurtu ziren, hor eraikia izan baitzen Nafarroako Erresuma berria, legezko errege/erregina zuzenen esku gelditu zena.

Egia esan, 1515.etik 1530 arte administral eta politik egoera nahasia, mugikorra eta aldakorra izan zen, berreziki Garazialdean. 1520.etik aurrera ziren agertu Behenafarroako mugak finkaturik eta segurtaturik mendigailurretan kokatuak diren lepoen araberako muga aukeratu baitzuen Karlos V garrenak. Horrela Nafarroako Iparraldean Erresuma berri bat eraikia izan zen, beregain egon zena 1789 arte.

Monarkia-egiturak eraberritu, birmoldatu eta erakundetu zituen pertsonaia inportanteena Enrike IIa izan zen, Labrit-eko Joanen semea, 1555 arte erretalkian iraun zuena.

Erretalkiarekin batera 1520.an azaldu zen Diruzaingorako Ganbara Pabe hirian emana; bere eskumenean zeukan Behenafarroako diruzain orokorra. 1524.etik 1527 artean agertu zen Gantzileria (Kantzelaritza), Donapaleun egoiten zena; legeditzaren zaindaria eta Goi - Auzitegiko Epaille Nagusia eta Erret-erabakien betearazlea zen Kantzelarria.

Erregearen eskumenean emana izan zen ere tokian tokiko administrazioa, eskualdeka banaturik. Eskualde bakoitzaren buru, baile, alkalde edo merino bat izendatu zuen erregeak. Administrazio zentrala garatu zen neurrian, tokian-tokikoa ere areagotuz joan zen. Hots, estatu moderno baten oinarriak hertsatu zizkion Behenafarroako Erresumari Enrike IIak: aginte-monarkiaren finkapena, estatu-boterearen finkapena, administrazioa botere tresna bihurturik, aro modernoko egiturak izan ziren Behenafarroan.

Bestalde, ez dezagun ahantz Behenafarroako Gortea izan zela XVI mendean, Labrit-eko Joanaren inguruan, konzientzia nafar/euskaldunaren adierazle, euskal humanismoaren zabalgun oinarri emanez. Gaurko nabarristek badute gogoeten egiteko gaia, irakurriz Joanes Leizarraga baten idatz lana. XVI garren mendean Behenafarroan garatu den euskal humanismoak argi adierazten digo Euskal Herriaren definizio geopolitiko osorik ezin dela eman Nafarroa gabe.



*Enrique II de Labrit, Rey de Navarra y marido de Margarita (1501-1555).
Cuadro de Léonard Limousin. Fechado en 1556.*



Margarita, *Reina de Navarra, esposa de Enrique II.*
Cuadro de la escuela de Jean Clouet.